

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloetan 2026. urtean dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak onesten dituen Alkatearen 2026ko apirilaren 17ko 2026/235 Dekretuaren laburpena

BDNS (Identif.): 899905.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdns-trans/GE/es/convocatoria/899905>).

Lehenengoa: Onuradunak

Dirulaguntza eskatu ahal izango du irabazteko xederik gabeko edozein elkarte eta/edo partikularrek, baldin eta interesa badu kultur, kirol eta gizarte programak edo jarduerak sustatzeko 2026an zehar, helburu izanik Aiarako udalerrri osorako onura publikoko edo gizarte intereseko jardunak sustatzea, eta betiere oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, onuradun izan ahal izango dira Etxaurren Ikastolako eta Aiaren egoitza duten ikas-tetxeetako guraso elkarteak, betiere deialdiaren helburuak badituzte.

Administrazio batzarrek ere dirulaguntza jaso ahal izango dute Olentzero eta Mari Domingi, San Joan, Santa Ageda eta Errege Magoen kabalkada egiteko, baldin eta bat etortzen badira deialdiaren xedeekin.

Bigarrena. Xedea

Udal programen osagarriak diren programak garatzea, hain zuzen ere, eskatzaileek sustatutako kultura, kirol eta gizarte arloko jarduerak, helburu izanik jardun publikoko edo gizarte intereseko ekintzak sustatzea Aiarako herritarrentzat, eta, horrela, udaleko atalek jarduera eremuetan aurreikusitako helburuak lortzen laguntzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

ALHAOn argitaratuko dira, baita DDBNn ere.

Oinarriak eta eskaera eredia Aiarako Udalaren web orrian daude eskuragarri: www.aia-rakoudala.eus.

Laugarrena: Zenbatekoa

Deialdia 38.000,00 eurekin dago hornituta.

Elkarte batek, 2026ean jarduerak eta proiektuak egiteko, gehienez ere 6.000,00 euro eska ditzake.

Bosgarrena: Eskaerak aurkezteko epea

Hilabeteko epea izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Seigarrena: Beste datu batzuk

Eskaera aurkeztean, eskaerari dagozkion eranskin guztiak beteta aurkeztu beharko dira, eta justifikagiria aurkezten denean, justifikazioari dagozkionak.

Justifikazio agiriak 2027ko urtarrilaren 20a baino lehen, egun hori barne, aurkeztu behar dira.

Arespalditza, 2026ko apirilaren 20a

Alkate-lehendakaria

PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA